

Turismo planak Eduardo Chillidari buruzko museo-tailerra sortzea planteatzen du


■ Planak Hernanin Chillida-Leku eta sagardotegiak jotzen ditu motor turistiko nagusi ■ Turismoa bultzatzeko erakunde propio bat sortzea planteatzen du, sektore publiko eta pribatuak bilduko dituena.

UDALAK eskutan du LKS Consulting enpresak egindako turismo plana. Lehenago egindako azterketari seguita, herrian sektore turistikoa bultzatzeko motor nagusiak Chillida-Leku eta Sagardotegiak izango dira. Planak 70 proposamenetik gora egin ditu, baina, orain banan bana aztertu beharko dira, bideragarritasuna aztertu eta nola gauzatu ikusteko.

Proposamen multzo bat Eduardo Chillida artistaren eta bere museoaren inguruakoa da. Chillidak bere aurreneko burni-lanak Hernanin egin zituela eta bolada batean Floridan bizi izandu zela kontuan izanda, proposamenetako bat da Chillidari buruzko museo-tailerra egitea Hernanin. Horrekin batera, bere obra bat herriko leku emblematico batean jartzea ere plantatzen da, eta baita kale edo plaza bat Eduardo Chillida izena jartzea ere.

Sagardotegiak urte osoan
Chillida-Lekurekin batean, motor turistiko nagusia sagardotegiak eta sagardoaren mundua izaki, planak sektore horren inguruan ere proposamen asko egiten ditu. Horietako bat da sagardotegi batzuk behintzat urte osoan zabalik egotea. Bisita giatuak antolatzen ere planteatzen da, eta baita zentroan sagardotegi berria zabaltzeko aukera ere.

Bi elementu nagusiez gain, Hernaniko beste ardatz turistikoak Alde Zaharra, Urumea, Santa Barbara, eta Hernaniko inguru berdeak dira eta horiek bultzatu eta egituratzeko proposamen konkretuak egiten dira. □



Chillidak artista gisa Hernanin eman zituen lehenbiziko pausoak.

Sektore publikoa eta pribatua bildu aktibitate turistikoa bultzatzeko

Hernanin turismoa bultzatzeko eskauntza turistoa definitu eta egituratzea da aurreneko pausoa, planaren arabera. Horrekin batera, ordea, aktibitate turistikoa bultzatuko duen erakunde propio bat sortzea proposatzen du, sektore publikoa eta pribatua bilduko dituena.

Orain arte eman diren pausoetan, puntu hori kontuan izan da: bai elementu turistikoak azterketan eta bai orain egin den planean horizan dira Berriak Merkata-

ritz Elkartea, Tolarea, Auzotarrak, agroturismoetako ordezkarriak, zenbait partikular eta abar. Elkarlana eskualdera eta Donostiara zabaldu beharra ere aipatzen du planak.

Udaletxetik planteatzen denez, turismo plan honen azken helburua da turismoa, herriko aktibitate ekonomiko bat gehiago izateaz gain, hernaniaren bizi kalitatea ere hobetzeko bide bat gehiago izatea: irudi aldetik, ingurugiro aldetik, garbitasunean, hirigintza aldetik eta abar.

TURISMO PLANAREN PROPOSAMENAK

CHILLIDA-LEKU

- ⇒ Chillidari buruzko museo-tailerra sortu, bere obra eta bizitzaz gain, Hernanirekiko harremana bilduko duena.
- ⇒ Hernani zentroa eta Chillida-Leku uztartu.
- ⇒ Chillidaren obra bat Hernaniko leku esanguratsuren batean jarri (Zinkoenean adibidez) eta kale edo plaza bat eskaini artistari.

SAGARDOTEGIAK

- ⇒ Sagardotegiak zabaldu txotx garaitik kanpora ere.
- ⇒ Bisita giatuak
- ⇒ Alde zaharrean sagardotegi berria ireki.

ELEMENTU OSAGARRIAK

- ⇒ Alde Zaharra berritu eta bultzatu: argiztapen plana...
- ⇒ Urumea: urari buruzko interpretazio zentroa, oinezko bi-deak eta bide gorriak, kirolak...
- ⇒ Santa Barbara egokitua eta bultzatu.
- ⇒ Inguru berdeak bultzatu: mendi bueltak definitu, Akola eta Aparrain txukundu eta ego-kitu, Gune megalitikoari oihartzuna eman...

ZERBITZUAK ETA AKTIBITATEAK

- ⇒ Aitor zinearentzat proiektu bat definitu kultur aktibitateen zentro gisa. Urte osorako kultur eta aktibitate egitarau era-kargarrria antolatu.
- ⇒ Merkataritza bultzatu. Merkataritza dinamizatzeko plana.
- ⇒ Alojamendu sarea osatu.
- ⇒ Eskualdearekin eta Donostiarekin elkarlana.

Errugbi asanblea

ERRUGBI elkartea asanblea du datorren ostiralean, Landaren. Lehen konbokatoria 19:30etan da eta bigarrena 19:45etan. □

MENDIRIZ MENDI

Neouvillera joateko azken eguna bihar

PIRINEOETAN Saint Lary eta Luz artean dagoen Neouville mendira irteera datorren asteburuan da eta izena ematea bihar bukatuko da Mendiriz Mendi. Neouvilleko parke naturalari izena ematen dio mendiak eta erreka eta laku ugari dituen paisaian gorra igotzen da tontorrera. Gailurretik gertu glaziarra du mendiak eta pioletak eta kranoia eraman behar dira. Bidaiaren kostua 55 euro da bazkideentzat, eta gainontzekoentzat 65 euro. Irteera, larunbatean, arratsaldeko 15:00etan, Atsegindeginetik. □

Txu-Txu trena ostiralean

BERRIAK komertziantzeta eta otsalari elkartea Txu-Txu trena jarriko du datorren ostiralean, herriko kaleetan barrena ibiltzeko. Irteera Gudarien plazatik izango da, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. Ibilbidea izango da: Plazatik Andre Kalean behera, Zinkoenea, Txirrita kalea, Urbia kalea, Latsunbe, Zinkoenea, Kale Nagusia eta berri zere plazara. □

MUSIKA

Gira Girou-Bossa Nova ostegunean Gunean

BIHAR, osteguna, Gira Girou-Bossa Nova taldeak kontzertua emango du Gunea zerbezerian. Constanza Gallo eta Edson Goya dira artista nagusiak eta gonbidatu eta guzti arituko dira bihar Hernanin, gaueko 22:30etan hasita. Gira Girou-Bossa Novak musika brasildarraren genero bat egiten du. Biharko emanaldiaz gain, Gunean San Joanetan ere izango dira musika ekitaldiak. □



Antzerkia, saloi dantzak eta dantza garaikideak Biterin, ikastaroetako ikasleen eskutik

■ Bihar, osteguna, antzerkia eta saloi dantzak daude, 19:30etan ■ Ostiralean, dantza garaikideak eta antzerkia, 19:00etan.

BITERIKO ikastaroetan ibili-tako antzerki, saloi dantza eta dantza garaikideko ikasleek ikasitakoa praktikan jarriko dute bihar eta etzi. Ostegunean antzerkia eta saloi dantzak

izango dira: antzerkian 20 bat lagun ibili dira ikasturtean, eta saloi dantzetan 60 bat lagun. Ostiralean, berriz, antzerkia eta dantza garaikideen txanda izango da: dantza garaikidean

28 bat lagun ibili dira.

Biteriko ikastaroek historia dezentea dute dagoeneko eta urte batean izen emandako jende askok jarraitzen du hurrengo kurtsoetan ere. □



Ehiza Txakur lehiaketa dago larunbatean Xoxokan.

Txantxangorri elkartea ekitaldi ugari antolatu ditu San Joan bueltan

■ Larunbatean ehiza zakur txapelketa dago Xoxokan, eta San Joan bezperan usokume tiroa eta karabina.

TXANTXANGORRI elkartea-ak ekitaldi ugari antolatu ditu San Joan jaien bueltan. Datorren larunbatean 32garren ehiza zakur lehiaketa dago Xoxokan, goizeko 09:00etik aurrera. Izen ematea bertan egin behar da, goizeko 08:30etik 09:00etara. Urtero antolatzen du Txantxangorrik ehiza zakur lehiaketa eta Udalaren laguntza du.

Usokume tiroa
Datorren igandean, hilak 20, usokume tiroa dago Jauregiko

zelaian, goiz eta arratsalde. Hernaniko Udaleko Sari Nagusia da, Colombarre erako probintzia eta herri mailako txapelketa hau.

Karabina

10-13 eta 14-16 urte arteko gazteentzat karabina txapelketa ere antolatu du Txantxangorrik. Kanporaketak datorren larunbatean dira, ekainak 19an, 17:00etan Txantxangorrin. Finala, San Joan bezperan, ekainak 23, 17:00etan Txantxangorrin. □



Pelotari sarituak. Eskuz: txapeldun Xabier Legarreta-Gorka Ezeiza eta bigarren Miel Angel Loiarte-Josu Narbarte. Neskak palaz: txapeldun, Jone Pikabea-Xare Esnal; eta bigarren, Lurdes Legarreta-Maitane Legarreta. Mutilak palaz: txapeldun, Arkaitz Santa Kruz-Unai Errionenea; bigarren, Joxe Ramon Urbixu-Bixente Elorza (Patxi Deskargaren ordez jokatu du finala lesionatua zegoelako).

San Antonioak Irubidieta eta Ugaldetxoko festarekin bukatu ziren astelehenean

■ Aurten ohitura mantendu eta San Antonio bigarrenarekin egin da festa eta jendeak ondo erantzun du ■ Antolatzailaek gustora daude erantzunarekin.

SAN Antonio bigarreneko egun pasarekin bukatu ziren festak Ereñotzun, joan den astelehenean. Goizez Irubidieta izan ziren toka, bola eta bertsolariak eta arratsaldean pelotako finalak, toka, bertsolariak eta erromeria izan ziren Ugaldetxon. Aurtengo San Antoniotan jende asko ibili da, eta antolatzailaek gustora daude erantzunarekin. San Antonio bigarreneko festa astelehenearekin izan bada ere jende asko bildu zen Irubidieta eta Ugaldetxon eta erremate ona izan dute aurtengo San Antonioek.



Ugaldetxon toka txapelketan.

Bestalde, errifik ere atera dituzte Ereñotzun eta aurtengo zenbaki saritua 0281 izan da.

Txartelak begiratzen ez lan haundiegirik hartu, egokituta zaiona azaldu omen da eta. □

San Fermin sarirako izen ematea ireki dute Joxe Mari tabernan

■ Izena ematea 2 euro da ■ Sorteo uztailaren 6an da
■ Biltzen dena 3 lehenengoek eramango dute.

SAN Fermin sariarena ohitura zaharra da Hernanin eta aurten ere egiteko dute. Parte hartu nahi duenak izena eman behar du eta 2 euro ordaindu eta zenbaki bat emango diote. Sorteoa ekainaren 6an egingo da gau-eko 24:00etan eta lehenengoak bildutakoaren % 50 eramango du, bigarrenak % 30 eta hirugarrenak % 20. Izen ematea irekia dago dagoeneko.

Oitura 1942-43 inguru sortua da eta saria jasotzen zuen San Ferminetara joateko erabilten omen zuten. □

ESKERTZA Miren Toledo Agirre

2004ko ekainaren 11n hil zen

Familia eta ingurukoek eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeraten guztioi eta hiletara etorri zinetenoi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO

Hernanin 2004ko ekainaren 16an.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYK: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103
- Alkoholiko anonimo: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru
Latsunbeberri 11
☎ 943 336077
- Gauzex: Gil
Lasarte. Nagusia 24
☎ 943 361529

IRAGARKI MERKEAK

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuek deitu: 661 86 22 19

Bi ohe artikulatu (motorrarekin artikulatzen dira) dauzkat salgai. 90 zmko zabalera dute eta berri berriak daude. Prezia adosteko Deitu: 943 33 37 67 . 943 33 05 84

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko: Deitu: 616 28 62 13

Kanping karroa salgai. Karabana bihurtzen da. Aluminiozko panelak. Interesatuek deitu arratsaldeetan: 943 551832

ondojan

ONDOJAN - ERAMATEKO JANA Antziolan
Oilasko erreak enkarguz, ebeko sukaldaritzarria,
prestatutako janaria, txarkuteria,...

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK

Antziola, 9. T. 943 33 12 52. Hernani

Yaben English School

Iturriaga z/g. 20120 Hernani Tel.: 943 33 17 63

5 eta 9 urte bitarteko haurretan espezializatuak.
Cambridge University-rako prestakuntza
Uztaleko intentsiboa
Azterketatako errekuperazioak

Matrikula irekia: Ekainaren 14tik 25era
Bulego ordutegia: 10:30etatik 12:30etara
"Local Examination Syndicate" of Cambridge University-ko kide